



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA BULTZATU

Energiaren gaiak erdigunea hartu du azkenaldian, hein batean nazioarteko egoerak bultzatuta. Energiaren garestitzeak argi utzi du herritarren eskura tresna gutxi daudela gaur egun arazo horri aurre egiteko.

Horretaz gain, larrialdi klimatiko egoeran gaude, eta Bergaratik hasita ere, energia berriztagarrien aldeko erabateko apustua egin beharrean gaude.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/944 (EB) Zuzentarauak, elektrizitatearen barne-merkaturako arau komunei buruzkoak, bezero aktiboaren eta energiaren komunitatearen figura definitzen du, eta herritarrak eta komunitateak sistema elektrikoaren eragile eta protagonista gisa aitortzeko oinarriak ezartzen ditu. Eredu horietan sakontzea ezinbestekoa da trantsizio energetikoa lehentasuna den une honetan eta prozesu honen lidergoa administrazio publikoei dagokie.

Trantsizio energetikoaren aldeko benetako apustua egin beharra daukagu herri bezala. Horretarako, batetik kontsumoa murriztu beharra dago, trantsizio energetikoa ezin daitekeelako lortu egungo kontsumoarekin, izan ere, energia berriztagarrietatik ezin daiteke lortu energia fosiletatik gaur egun lortzen dugun energia kopurua.

Bestetik, burujabetza energetikoa bultzatu beharra daukagu guk gure lurraldean behar dugun ahalik eta energia gehien ekoizteko eta ekoizpen bitartekoen kontrol publiko eta soziala izateko. Honenbestez, energia berriztagarrien proiektuak bultzatu behar ditugu. Eguzki plaken erabilera handitu beharra dago, udal eraikinetako teilatuetan, etxebizitzetan, fabriketan... jarriz. Bestelako energia iturri berriztagarriak ere aztertu beharko dira.

Begarako herria eta bergararrak jakitun dira energia berriztagarrien bidea jorratu beharra dagoela, eta horregatik, azken hilabeteetan Berener irabazi asmorik gabeko kooperatiba eratzeko prozesua ontzen jardun dute elkarlanean, Bergarako Udalak bideratutako prozesu batean.

Berenerren helburua da, besteak beste, energia burujabetzarantz pausuak ematea, eta energia sorkuntzara bideratutako ahalik eta proiektu gehien egitea. Era berean, Berenerren erabakia izango da mota bateko edo besteko proiektuak martxan jartzea, eta egoki irizten duen eredia jarraitze, hala nola, teilatuak erabiliz instalazio fotovoltaikoak planteatzea, "Ekiola" ereduari jarraituz lur-sail bat proiektu batera bideratzea edo bestelako energia berriztagarri proiektu ezberdinak aztertzea.

Lankidetza publiko-komunitarioa eta elkarlana ezinbestekoa izango da Berenerren garapenean, eta Udalarik lankidetza estua izatea egokituko zaigu. Bide horretan, Udalak eta herritarrek klima eta ingurumenaren alde egingo dugun apustua handia izango da, eta gainera, gure energia fakturaren aurrezpena ekarriko digu.

Beraz, honako hau onartzea proposatzen diogu udalbatza honi:

1. Bergarako Udalak Berener irabazi asmorik gabeko kooperatibaren jarduna lagunduko du, eta elkarlanerako prestutasuna adierazten du proiektuak garatzerako orduan.
2. Bergarrei Berenerren bazkidezteko gonbita egiten die Bergarako Udalak.

Bergaran, 2022ko azaroaren 28an